| **2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA** | **LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020** |
|---|---|
| **Saila:** 30 EMPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENA ETA FORU ADMINISTRAZIOA | **Departamento:** 30 FOMENTO DEL EMPLEO, COMERCIO Y TURISMO Y DE ADMINISTRACIÓN FORAL |
| **Programa:** 32 ZERBITZU OROKORRAK | **Programa:** 32 SERVICIOS GENERALES |

## SAILAREN MEMORIA

## I. MEMORIA

2020ko ekitaldian, batetik, Arabako Foru Aldundiko unitateetan izaera erkideko elementuak hornitzeko eta, bestetik, zerbitzuak emateko beharrezkoak izan ziren ekintza guztiak gauzatu zituen Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak.

Funtsean, arestian aipatutako hornidurak eta zerbitzuak kontratatzea eta horiek guztiak modu zentralizatuan kudeatzea izan zen ekintzen helburua, bai eta Zuzendaritzako zerbitzuek zerbitzu jakin batzuk zuzenean ematea ere.

Era berean, ekipamendu zentralizatuko urteko planak diseinatu ziren, eta horiek gauzapenak isla izan zuen ekitaldiaren barruan bulegoko ekipoetan eta ekipo informatikoetan egindako inbertsioetan.

## II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

Programaren helburuak goian deskribatutakoak dira, eta helburu horiei lotuta benetan egindako gastuaren arabera kuantifikatu ziren.

Ildo horretan, Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari esleitutako aurrekontuaren gauzatze-maila –lehen aipaturiko helburu horiek betetzeko baliatu zen, oso-osorik (II-VIII. kapituluak)– esandako kapituluetan jasotako kontzeptu guztien araberako aurrekontuan jasotako zenbatekoen % 90era iritsi zen.

EKINTZA NAGUSIAK

Sasoia zenean egindako azpiprogramen sailkapenaren arabera ordenatuta, Zerbitzu OrokorreN Zuzendaritzak garatutako ekintza nagusiak honako hauek izan ziren (zenbateko guztiak BEZ zerga aintzat hartuta adierazita daude):

- Arabako Gurutze Gorriari lurralde historikoko laguntza sarean darabiltzan ibilgailuak konpontzeko dirulaguntza eman zitzaion, hitzarmenaren arabera, 6.000 euroko zenbatekoa emanda.

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

## I. MEMORIA

Durante el ejercicio de 2020 se llevaron a cabo desde la Dirección de Servicios Generales cuantas acciones resultaron necesarias para el suministro de elementos y la prestación de servicios de carácter común a las diversas unidades de la Diputación Foral de Álava.

Fundamentalmente, las acciones consistieron en la contratación de los citados suministros y servicios y en su gestión con carácter centralizado, además de en la prestación de determinados servicios de forma directa por los distintos Servicios de la Dirección.

Igualmente se diseñaron los oportunos planes anuales de equipamiento centralizado, cuya ejecución se plasmó en las inversiones en equipos de oficina e informáticos realizadas a lo largo del ejercicio.

## II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Los objetivos del programa, que no son otros que los arriba descritos, se cuantificaron en términos de gasto efectivo realizado en los mismos.

En tal sentido, el grado de ejecución del presupuesto asignado a la Dirección de Servicios Generales, que se destinó (en sus Capítulos II a VIII) íntegramente al cumplimiento de los citados objetivos, alcanzó el 90% de los importes presupuestados por todos los conceptos comprendidos en los capítulos mencionados.

PRINCIPALES ACCIONES

Ordenadas de acuerdo con la clasificación de subprogramas realizada en su día, las principales acciones desarrolladas por la Dirección de Servicios Generales fueron las siguientes (todos los importes son IVA incluido):

- Se subvencionó a la Cruz Roja de Alava la reparación de sus vehículos destinados a la red de asistencia en el Territorio Histórico, según Convenio, por un importe de 6.000 €.

- ISO 9001/2015 kalitate-ziurtagiriari eustea xede duten hainbat jarduera garatu ziren, baita kalitatearen arloarekin lotutako beste batzuk ere, guztira, 3.897,97 euroko zenbatekodunak.
- AFAren telefonogunearen arreta-zerbitzuaren kostua 107.861,01 eurokoa izan da.
- Arabako Foru Aldundiko unitateetarako bulegoko material-elementuak erosi ziren, kopiagailu eta inprimagailuen papera ere kontuan hartuta. Horien zenbatekoa 21.176,20 eurokoa izan zen.
- Arabako Foru Aldundiko unitateetarako kontsumigarri informatikoak erosi ziren, guztira 43.924,87 euroko zenbatekoodunak.
- Arabako Foru Aldundiko hainbat langileri jantziak eta oinetakoak eskuetaratu zitzaizkien, guztira 34.763,81 euroko zenbatekodunak. Horien guztien ikuztegiaren kostua 5.221,96 eurokoa izan zen.
- Telefono eta informatika komunikazioen zerbitzuak eman ziren, 457.830,69 euroko zenbatekodunak.
- Posta bidezko komunikazio, mezularitza, barne-posta eta abarren kariaz, 1.023.710,37 euro ordaindu ziren guztira.
- Kontzeptu horren zioz, Agentzia Exekutiboari zegokion 13.823,99 euroko zenbatekoa ordaindu zen, eta agentziak gero itzuli egin zuen.
- Funtzio anitzeko ekipamenduen alokairu eta mantentze kontratuak sinatu ziren, guztira 106.512,30 euroko zenbatekodunak.
- Konponketa eta mantentze jarduketen zioz eta AFAren bulegoko ekipoen mantentze lanetarako kontratuen zioz, 6.313,98 euroko zenbatekoa ordaindu zen guztira.
- Arabako Foru Aldundiko unitate batzuetarako zenbait tresna tekniko eta bulegoko ekipamendua erosi ziren, 5.145,34 euroko zenbatekodunak.
- IBM etxearen prozesadore zentralen eta AKGABren inprimagailu zentralizatuen alokairua 3.861.229,76 eurokoa izan zen.
- AKGABren ekipo zentralizatuetan eta AFAko hainbat sailetan instalatutako programa

- Se desarrollaron diversas actividades destinadas al mantenimiento de la certificación de calidad ISO 9001/2015, así como otras relacionadas con el área de la calidad por importe de 3.897,97 €.
- El servicio de atención de la central telefónica de DFA ha supuesto un importe de 107.861,01 €.
- Se adquirieron elementos de material de oficina para las distintas Unidades de DFA, incluyendo papel de copiadoras e impresoras, cuyo importe ascendió a 21.176,20 €.
- Se adquirieron consumibles informáticos para las distintas Unidades de DFA por un importe global de 43.924,87 €.
- Se suministraron prendas de vestuario y calzado a distinto personal de la DFA por un importe global de 34.763,81 €, cuyo coste posterior de lavandería ascendió a 5.221,96 €.
- Se prestaron servicios de comunicaciones telefónicas e informáticas por importe de 457.830,69 €.
- Se abonaron en concepto de comunicaciones postales, mensajería, valija interna, etc. un total de 1.023.710,37 €.
- Por el mismo concepto se abonaron 13.823,99 € correspondientes a la Agencia Ejecutiva, posteriormente reintegrados por la misma.
- Se suscribieron contratos de alquiler-mantenimiento de equipos multifunción por un importe total de 106.512,30 €.
- Las actuaciones de reparación y conservación, así como los oportunos contratos de mantenimiento de equipos de oficina de la DFA supusieron un importe global de 6.313,98 €.
- Se adquirió diverso instrumental técnico y equipamiento de oficina para distintas unidades de la DFA por importe de 5.145,34 €.
- El alquiler de los equipos procesadores centrales de IBM y de las impresoras centralizadas del CCASA supuso un importe de 3.861.229,76 €
- El coste del alquiler de los programas informáticos instalados en los equipos centralizados del

informatikoak alokatzearen ziozko kostua 1.109.366,93 eurokoa izan zen.

- Arabako Foru Aldundiaren parke informatikoaren mantentze-lanen kostua, bai sinatutako kontratuek jasotako lanei lotutakoa, bai kontratuotan hitzartu gabeko konponketa jarduketei lotuta, 138.795,16 eurokoa izan zen.
- 2020an, lanpostuko ekipo informatikoen parkea berritzeko proiektuari ekin zaio, ekipamendu horiek prestazio batzuk eskain ditzaten, bai hardwareari dagokionez, bai softwareari dagokionez, denboran zehar etengabe hazten diren premiei erantzuteko. Kontratu horretan jasota daude, hala berean, kontsultei eta gorabeherei erantzuteko zerbitzuak eta euskarri mikroinformatikoa. Proiektuaren zati horren balioa 577.835,68 eurokoa izan da.
- Kanpoko hainbat zerbitzu informatiko kontratatu ziren (batez ere, ELZrekin lotutakoak), guztira, 23.186,02 euroko zenbatekodunak.
- AFAren eta IZENPE, S.A., Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresaren arteko lankidetza hitzarmenari atxikitakpo betebeharrei aurre egiteko ordaindutako zenbatekoa 108.563,03 eurokoa izan zen, ziurtagiri elektronikoaren eredu bateratua garatzeko. Indarraldia 2020ko urriaren 2an amaitu ondoren, mandatua egin zaio enpresa horri, bitarteko propio gisa, ziurtapen elektronikoaren eredu erkidea gara dezan (identifikazioa, autentifikazioa eta sinadura), bai eta konfiantza zerbitzuak eta datuen bitartekaritza zerbitzuak garatzeko ere. Horien guztien kostua 241.785,98 eurokoa izan da, eta 2020ko ekitaldiari 78.919,38 euroko zenbatekoa dagokio.
- AKGABk emandako informatika-zerbitzuen zenbatekoa 1.478.037,39 eurokoa izan zen.
- Hainbat ekipo informatiko zentralizatu erosi ziren, 39.398,72 euroko zenbatekoa ordainduta.
- Arabako Foru Aldundiko sailetarako hainbat ekipo informatiko erosi ziren, 60.467,81 euroko zennbatekoa ordainduta.
- Arabako Foru Aldundiaren informatika-parkea modernizatzeak 211.795,92 euroko kostua izan zuen ekipamenduen hornidurari eta ezarpenari



C.C.A.S.A. y en diversos departamentos de DFA ascendió a 1.109.366,93 €.

- El coste de mantenimiento del parque informático de DFA, tanto en virtud de los contratos firmados, como de las actuaciones de reparación no contempladas en los mismos ascendió a 138.795,16 €.
- En 2020 se ha acometido el proyecto de renovación del parque de equipos informáticos de puesto de cara a que los mismos ofrezcan unas prestaciones, tanto en lo relativo a hardware como a software, acordes con unas necesidades que crecen permanentemente en el tiempo. El contrato comprende, asimismo, los servicios de atención de consultas e incidencias y el soporte microinformático. Esta parte del proyecto ha ascendido a la cantidad de 577.835,68 €.
- Se contrataron diversos servicios informáticos externos (fundamentalmente relacionados con CAU), por un importe total de 23.186,02 €.
- El importe abonado para hacer frente a las obligaciones derivadas del convenio de colaboración entre la DFA y Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios IZENPE, S.A., para el desarrollo de un modelo común de certificación electrónica ha ascendido a 108.563,03 €. Una vez finalizada su vigencia el 2 de octubre de 2020, se ha procedido a realizar un encargo como medio propio a dicha empresa para el desarrollo de un modelo común de certificación electrónica (identificación, autenticación y firma), así como de servicios de confianza y de intermediación de datos, por un importe de 241.785,98 €, correspondiendo al ejercicio 2020 la cantidad de 78.919,38 €.
- Los servicios informáticos prestados por el CCASA ascendieron a 1.478.037,39 €
- Se adquirieron diversos equipos informáticos de carácter centralizado por importe de 39.398,72 €.
- Se adquirieron diversos equipos informáticos para los distintos Departamentos de la DFA por importe de 60.467,81 €
- El coste de la modernización del parque informático de la DFA, en lo que se refiere a suministro e implantación de los equipos ascendió a 211.795,92 €

dagokienez.

- Hainbat programa informatiko erosi ziren, 425.859,04 euroko baliokoak.
- Arabako Foru Aldundiko sailetan instalatutako programa propioak mantentzeko eta hobetzeko kostua eta AKGABek proiektu zentralizatuen garapenean duen partaidetzaren zenbatekoa 8.301.108,07 eurokoa izan zen.
- Laborategi Orokorraren funtzionamendu-gastuek, material berezien hornidurari eta ekipoen mantentze-lanei dagokienez, 109.925,69 euroko guztizko kostua ekarri zuten. Ekipo berrien hornidurаren kostua 19.527,96 eurokoa izan zen.

Komeni da aipatzea, 2020an, 50 urte bete zirela Laborategi Orokorra abian jarri zenetik, eta, pandemiaren eraginez, ezin izan direla egin aurreikusita zeuden zabalkunde jarduerak.

- Parke mugikorreko makinen eta instalazioen eta horri lotutako material berezien inbertsioen eta mantentze lanen kostua 51.491,53 eurokoa izan zen.
- Ibilgailuen Zerbitzuak ibilgailuen mantentze lanak egin zituen, eta, horren ondorioz, kanpoko hainbat hornidura eta zerbitzu kontratatu behar izan ziren. Horien kostua 411.027,83 eurokoa izan zen.
- Arabako Foru Aldundiaren parkea osatzen duten ibilgailuak erregaiz hornitu ziren, guztira 410.259,40 euroko zenbatekoa gastatuta.
- AFAko ibilgailuen zirkulazio zergaren kostua 38.579,98 eurokoa izan zen.
- Tailerreko makinen hainbat elementu erosi ziren, ibilgailuen atalean erabiltzeko, eta 18.526.53 euroko kostua izan zuten.
- Sinatutako lankidetza hitzarmenari loturik, INDESA 2010 S.L.ren ibilgailuetan egindako lanen kostua 43.220,44 eurokoa izan zen.
- Langileak eta materialak garraiatzeko hainbat ibilgailu erosi ziren eta 64.507,60 euroko zenbatekoa ordaindu zen.

- Se compraron diversos programas informáticos por valor de 425.859,04 €.
- El coste de mantenimiento y mejora de programas propios instalados en distintos departamentos de la DFA y de la participación del C.C.A.S.A. en el desarrollo de proyectos centralizados supuso un importe de 8.301.108,07 €.
- Los gastos de funcionamiento del Laboratorio General, en cuanto a suministro de materiales especiales y mantenimiento de sus equipos supusieron un coste global de 109.925,69 €. El coste del suministro de nuevos equipos ascendió a 19.527,96 €.

Conviene mencionar que en 2020 se cumplía el 50 aniversario de la puesta en marcha del Laboratorio General y que, debido a la situación de pandemia, no se han podido realizar las actividades de divulgación que estaban previstas,

- El coste de inversiones, mantenimiento de la maquinaria e instalaciones del Parque Móvil y los materiales especiales asociados al mismo ascendió a 51.491,53 €.
- Por el Servicio de Parque Móvil se desarrollaron tareas de mantenimiento de vehículos, que conllevaron la contratación externa de diversos suministros y servicios, y cuyo coste ascendió 411.027,83 €.
- Se suministraron carburantes a los vehículos integrantes del Parque de la DFA por un valor total de 410.259,40 €.
- El impuesto de circulación de la flota de vehículos de la DFA fue de 38.579,98 €.
- Se adquirieron diversos elementos de maquinaria de taller con destino al Parque Móvil por importe de 18.526.53 €.
- El coste de los trabajos realizados en la flota de vehículos de INDESA 2010,S.L. al amparo del convenio suscrito ha ascendido a 43.220,44 €
- Se adquirieron diversos vehículos para transporte de personal y materiales por un importe de 64.507,60 €.

## 2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 30 EMPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENA ETA FORU ADMINISTRAZIOA

**Programa:** 32 ZERBITZU OROKORRAK

- Hainbat instalazioren mantentze lanetarako kontratu batzuk sinatu ziren zenbatit enpresarekin, eta ildo bereko lanak egin ziren; gainera, beharrezko materialak eta tresnak eskuratzu ziren, 546.733,52 euroko zenbatekodunak.
- Hainbat enpresarekin kontratatutako garbiketa zerbitzuen kostu osoa 1.776.733,58 eurokoa izan zen, eta garbiketa produktuetan gastatutako zenbatekoa 1.404,60 eurokoa izan zen.
- Aldundiaren instalazioen energia elektrikoaren horniduraren kostua 942.641,48 eurokoa izan zen.
- Aldundiaren instalazioetan kontsumitutako berokuntzako erregaien kostua (gasolioa zein gasa) 246.387,91 eurokoa izan zen.
- Ur kontsumoen eta saneamenduko eta hondakin uren udal tasen kostua 74.255,97 eurokoa izan zen.
- Material elektrikoa hornitzeko gastua 95.499.99 eurokoa izan zen guztira.
- Inprimategiko makinen eta instalazioen mantentze lanen kostua 20.877,25 eurokoa izan zen.
- Gaitasunik edo teknologia berekirik ez dagoeneko lanak azpikontratatzeari dagokionez, 3.589,59 euro gastatu ziren.
- Materialak erosteko kapituluan, 62.151,84 euroko zenbatekoa ordaindu zen.
- Langile Laguntzaileen Zerbitzuaren bidez, zenbateko txikiko hainbat behar materiali erantzun zitzaien (oro har, foru diputatuen eguneroko arretatik sortutakoak), guztira 4.051,76 euroko zenbatekoa ordainduta.

COVID-19

2020ko martxoaren 14az geroztik pairatzen ari garen ezohiko egoerak ez zuen aldaketa handirik eragin kontratuak betetzerakoan eta, ia-ia osorik, behar bezala gauzatu ziren:

· Eskaeraren araberako hornidura-kontratuetan (adibidez, bulegoko materiala, jantziak…) izurriteak eragindako egoerak ez du eraginik izan, eskaerak

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

**Departamento:** 30 FOMENTO DEL EMPLEO, COMERCIO Y TURISMO Y DE ADMINISTRACIÓN FORAL

**Programa:** 32 SERVICIOS GENERALES

- Se suscribieron diversos contratos de mantenimiento de distintas instalaciones con diferentes empresas y se realizaron labores en el mismo sentido, junto con la adquisición de los oportunos materiales y herramientas necesarias, por un importe de 546.733,52€.
- El coste global de los servicios de limpieza contratados con diversas empresas ascendió a 1.776.733,58 €, siendo el importe gastado en productos de limpieza de 1.404,60 €.
- El coste del suministro de energía eléctrica de las instalaciones de la Diputación fue de 942.641,48 €.
- El coste de los combustibles de calefacción consumidos por las instalaciones de Diputación (tanto gasóleo como gas) ascendió a 246.387,91 €.
- El coste de los consumos de agua, así como de las tasas municipales de saneamiento y residuales fue de 74.255,97 €.
- El gasto en el suministro de material eléctrico ha supuesto un total de 95.499.99 €.
- Los costes de mantenimiento de la maquinaria e instalaciones de la Imprenta fueron de 20.877,25 €.
- En el apartado de subcontratación de trabajos para los que no se dispone de capacidad o tecnología, se gastaron 3.589,59 €.
- En el capítulo de compra de materiales se abonaron 62.151,84 €.
- Se atendieron, a través del Servicio de Personal Auxiliar, diversas necesidades materiales de pequeña cuantía (generalmente surgidas de la atención diaria a los Diputados Forales), por un importe global de 4.051,76 €.

COVID-19

La situación extraordinaria que vivimos desde el 14 de marzo de 2020 no supuso una alteración importante en la ejecución de los contratos que se prestaron casi en su totalidad, de forma normal:

· Los contratos de suministro a demanda (p.ej. material de oficina, vestuario…) no se han visto afectados por la situación, ya que los pedidos se han

beharren arabera egin baitira.

· Eskariaren araberako zerbitzuen kontratuetan (adibidez, hondakinen bilketa) izurriteak eragindako egoerak ez du eraginik izan; izan ere, enpresa esleipendunekin jarri gara harremanetan, beharrak sortu ahala.

· Mantentze-lanetako zerbitzuak eman dira, hilabete horietan egiaztatu behar ez zirenak edo geroratu zitezkeenak izan ezik.

· Lizentzien mantentze-kontratuak – Egoerak ez die eragin.

· Garbiketa-kontratuan, enpresa esleipendunarekin adostu ziren egin beharreko lanak.

· Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren (IAT) zerbitzua ematea – IAT guneak aldi baterako itxi zirenez, ibilgailuen azterketa teknikoa egiteko betebeharra etenda geratu zen aldi baterako, eta, beraz, aldi horretan egin beharreko azterketa guztiak atzeratu ziren.

· Posta-zerbitzuak, mezularitza-zerbitzuak, posta-kudeaketa - Correos-ek unean-unean ezarritako jarraibideen arabera gauzatu ziren zerbitzuak. Kontratu horiek unitate-prezioaren araberakoak dira, eta, beraz, benetan egindako lanei dagokien zenbatekoa ordaindu zen.

Beste alde batetik, 5 espediente izapidetu ziren larrialdi-prozeduraren bidez, batetik, telelanean aritzeko informatika-elementuak eta, bestetik, funtsezko zerbitzuak modu seguruan emateko maskarak eta babes-manparak eskuratzeko.

COVID-19ari lotutako gastuei dagokienez, Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak 211.256,26 euroko zenbatekoa hartu du bere gain (informatika-elementuak, gel hidroalkoholikoa, maskarak, alkohola eta manparak).

DIRU SARRERAK

Ondoko kontzeptuei doazkien zenbateko hauek jaso dira:

- 2020ko urriaren 14an, hitzarmen bat sinatu zuten

hecho según las necesidades.

· Los contratos de servicios a demanda (p.ej. recogida de residuos) no se han visto afectados por la situación, ya que se ha contactado con las empresas adjudicatarias según se han ido presentando las necesidades.

· Los servicios de mantenimiento se han seguido prestando, salvo los que su verificación no correspondía en estos meses o era viable su traspaso a un momento posterior.

· Contratos de mantenimiento de licencias – no se han visto afectados por la situación.

· En el contrato de limpieza se consensuaron con la empresa adjudicataria los trabajos a realizar.

· Prestación de Servicio ITV – debido al cierre temporal de las estaciones ITV, la obligación de pasar esta inspección de los vehículos quedó temporalmente suspendida, aplazándose, por tanto las revisiones correspondientes.

· Servicios postales, de mensajería, gestión de correspondencia - se han realizado los servicios en función de las pautas que iba marcando Correos. Estos contratos son de precios unitarios, por lo que se ha abonado la cantidad correspondiente a los trabajos efectivamente realizados.

Por otro lado, se tramitaron 5 expedientes por el procedimiento de emergencia para la adquisición de elementos de informática que permitieran el teletrabajo, mamparas de protección y mascarillas para la prestación de los servicios esenciales de forma segura.

Desde la Dirección de Servicios Generales se han asumido gastos relacionados con la COVID-19 por importe de 211.256,26 euros (elementos de informática, gel hidroalcohólico, mascarillas, alcohol y mamparas)

INGRESOS

Se han recibido las siguientes cantidades por los siguientes conceptos:

- Con fecha 14 de octubre de 2020 se suscribió un

Arabako Foru Aldundiak, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapena eta Foru Administrazioa Sailaren bidez, eta INDESA 2010 S.L.k. Hitzarmen hori dela bide, Ibilgailuen Zerbitzuak konpromisoa hartu zuen INDESA enpresaren ibilgailuak konpontzeko eta horien mantentze-zerbitzua emateko; hortaz, esandako enpresari zegokion piezen eta materialen kostua ordaintzea, eskulana kontuan hartu gabe. 2020an, 53.523,26 euroko diru-sarrera aitortu zen kontzeptu horrengatik.

- Beste erakunde batzuen kontura ordaindutako fakturetan eta ur-ordainagirien itzulketetan, 2.076,84 euroko diru-sarrerak jaso ziren.
- Sociedad Estatal Correos y Telégrafos S.A. enpresari esleitutako posta-zerbitzuen kontratuaren helburua da “Posta-zerbitzuak ematea Arabako Foru Aldundiarentzat eta Diru-bilketa Exekutiboa kudeatzen duen erakundearentzat”. Zerbitzu Orokorrek emandako zerbitzu guztiak ordaindu zituen, eta, ondoren, lurraldeko zerga-kudeaketaren jakinarazpenak banatzeagatik beren gain hartutako zenbatekoa itzultzeko eskatu zen. 2020an, 13.823,99 euroko diru-sarrera aitortu zen kontzeptu horrengatik.
- Kontratu horren barruan, besteak beste, zigorrak aurreikusi ziren jakinarazpenak oker egiteagatik, eta 2020ko ekitaldi osoan, 4.175,00 euroko diru-sarrerak aitortu ziren.
- Arabako Foru Aldundiaren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen, INDESA 2010, S.L.ren eta Arabako Foru Suhiltzaileen Erakunde Autonomoaren telekomunikazio-zerbitzuen prestazioa Telefónica de España, S.A. eta Telefónica Móviles España S.A.U. aldi baterako enpresa-elkarteari esleitu zitzaion (5. lotea: Komunikazio finkoen, mugikorren eta Interneterako konexioaren soluzio integratua (1., 2. eta 3. loteen batura). Lotea osatzen zuen zerbitzua edo zerbitzuak martxan jartzeko ezarritako gehieneko epea 155 egunez berandutu zenez, 62.684,57 euroko penalizazioa ezarri zen.
- Arabako Foru Aldundiaren eta GOFEren Cisco, Checkpoint, HPE eta F5 fabrikatzaileen sareko software eta gailuen parkearen mantentze-kontratuaren esleipenduna den Telefónica

Convenio entre la Diputación Foral de Álava, a través del Departamento de Fomento del Empleo, Comercio y Turismo y de Administración Foral e INDESA 2010, S.L., por el que el Servicio de Parque Móvil se compromete a la prestación del servicio de reparación y mantenimiento del parque móvil de INDESA, a quien le corresponde abonar el coste de las piezas y materiales, sin incluir la mano de obra. En 2020 se ha reconocido un ingreso por este concepto de 53.523.26€.

- Se han recibido ingresos por abonos en facturas y reintegros de recibos de agua abonados por cuenta de otras entidades por importe total de 2.076,84 €.
- El contrato de servicios postales adjudicado a la empresa Sociedad Estatal Correos y Telégrafos, S.A. tiene por objeto la “Prestación de servicios postales para la Diputación Foral de Álava y la entidad gestora de la Recaudación Ejecutiva”. Por parte de Servicios Generales se abona la totalidad de los servicios prestados y posteriormente se requiere el reintegro del importe asumido por la distribución de las notificaciones de Gestión Tributaria Territorial. En 2020 se ha reconocido un ingreso por este concepto que asciende a 13.823,99 €.
- Dentro de ese mismo contrato se preveían, entre otras, penalizaciones por la realización incorrecta de las notificaciones, habiéndose reconocido unos ingresos en todo el ejercicio 2020 de 4.175,00 €.
- Se adjudicó la prestación de los servicios de telecomunicaciones a la Diputación Foral de Álava, el Instituto Foral de Bienestar Social, Indesa 2010, S.L. y el Organismo Autónomo Bomberos Forales de Álava, a favor de la UTE Telefónica de España, S.A -Telefónica Móviles España, S.A.U. del Lote 5 - Solución integrada de comunicaciones fijas, móviles y conexión a Internet (agrupación de los Lotes 1, 2 y 3). El retraso de 155 días respecto del periodo máximo establecido para la puesta en funcionamiento del servicio o servicios que comprenda el lote ha supuesto una penalización de 62.684,57 €.
- A la empresa Telefónica Soluciones de Informática y Comunicaciones de España, S.A.U., adjudicataria del contrato de mantenimiento del parque de dispositivos y software de red de los fabricantes

Soluciones de Informática y Comunicaciones de España, S.A.U. enpresari 5.141,81 euroko penalizazioa ezarri zitzaion kontratua gaizki betetzeagatik, baldintza-agirietan ezarritako epean baino denbora luzeagoan erantzun ziolako gorabehera bati.

Jarraian, **Arkitektura Zerbitzuak** egindako jarduerak deskribatuko ditugu:

**Laudio: Lamuza parkeko eraikinak**

**Jauregia:**

Laudioko Lamuza Jauregiaren kanpoaldea zaharberritzeko obraren zuzendaritza fakultatiboa. 2020an, lan horien ziozko gastua 2.202.776,69 eurokoa izan zen. Obran, zenbait zailtasun gainditu behar izan ziren, hala nola aurri-egoeran zeuden edo amiantodun zuntz-zementuzko plakez horniturik zurezko estalkien desmuntaketa konplexuak, COVID-19ak behartutako geldialdiak edo udalerriaren zati baten ur-horniduran eragina izan zuen urbanizazio-lana. Obrak jauregiaren eraginkortasun energetikoa hobetu egin du; horretarako, isolamendu termiko erregaitza instalatu zen estalki guztietan, eta leiho berriak jarri ziren, beira bikoitzez argon gasdun aire-ganberaz horniturik. Era berean, berokuntza-sistema berria ezarri zen: bi biomasa galdara eta kontrol balbula termostatikoak berogailu guztietan.

Beste alde batetik, esan beharra dago Goitu Eraikuntzak S.L. enpresak egindako eskaria, Lamuza jauregia zaharberritzeko obraren epea 57 egunez luzatzekoa, onartu zela. Era berean, Goitu Eraikuntzak S.L. enpresak aurkezturiko Lamuza jauregiaren kanpoko zaharberritze lanen Segurtasun eta Osasun Planaren 1. eta 2. eranskinak onartu zirela adierazi behar dugu. Segurtasun eta osasuneko koordinatzailearen lanak kanpo kontratazio baten bidez bete ziren, eta kontratazio horrek 5.227,20 euroko kostua izan zuen 2020an. Obraren harrera akta 2020ko azaroaren seian sinatu zen.

Obra burutu ondoren, pintaden aurkako tratamendua eman zen jauregiaren ekialdeko hegaleko arkupean, eta horren kostua 5.955,29 eurokoa izan zen.

Beste alde batetik, katak egin ziren, datuak hartu

Cisco, Checkpoint, HPE y F5 de la Diputación Foral de Álava  y del IFBS se le impusieron unas penalidades de 5.141,81 € por cumplimiento defectuoso del contrato, al responder a una incidencia en un plazo superior al establecido en los pliegos.

A continuación se describen las actuaciones del **Servicio de Arquitectura**:

**Llodio: edificios en Parque Lamuza**

**Palacio:**

Dirección facultativa de la obra de Restauración exterior del Palacio Lamuza de Llodio. Durante 2020 el gasto realizado por estas obras asciende a 2.202.776,69 euros. En la obra se han superado dificultades como desmontajes complejos de cubiertas de madera en estado ruinoso o con placas de fibrocemento con amianto, paradas forzadas por el COVID-19 o urbanización con repercusión en el suministro de agua de parte del municipio. La obra ha mejorado la eficiencia energética del palacio introduciendo aislamiento térmico incombustible en todas sus cubiertas y disponiendo nuevas carpinterías con doble vidrio y cámara de aire con argón. Así mismo, se ha dispuesto un nuevo sistema de calefacción mediante 2 calderas de biomasa y válvulas termostáticas de control en cada radiador.

Por otra parte, se informa de la conformidad con la solicitud de ampliación de plazo en 57 días de la obra de Restauración del Palacio Lamuza solicitada por Goitu Eraikuntzak S.L. También se informa sobre  la aprobación de los anexos 1 y 2 del Plan de Seguridad y Salud de las obras de restauración exterior del Palacio Lamuza presentado por Goitu Eraikuntzak S.L. Los trabajos de coordinador de seguridad y salud han sido realizados mediante una contratación externa que ha supuesto 5.227,20 euros en el año 2020. El día seis de noviembre de 2020 se firma el acta de recepción de la obra.

Con posterioridad a la obra, se realiza una aplicación de tratamiento antipintadas en el pórtico del ala este del palacio cuyo importe que asciende a 5.955,29 euros.

Por otra parte, se han realizado catas, toma de datos

ziren eta jauregiaren egituraren egungo egoera ebaluatu zen, gaur egun duen sostengu-ahalmena zehazteko. Horien kostua 2.758,80 eurokoa izan zen guztira.

URA Uraren Euskal Agentziarekin ere hainbat kudeaketa egin ziren, Lamuzako multzoan oinezkoentzako zubi bat berritzeko baimena lortzeko helburuz.

Azkenik, argazki bidezko azterlan profesionala egin zen jauregiaren kanpoaldean.

**Kasinoa**:

Igeltsu iztukatuz eginiko barneko luzituak kendu eta kare drainatzailezko mortairuz oaturtako estaldura berriak aplikatu ziren, hormak lehortzeko eta hezetasuna kentzeko xedez. Jarduketa horren kostua 6.020,96 eurokoa izan zen. Era berean, alarmen kontrolgunea ordeztu zen, 1.205,83 euroko zenbatekoaren truke.

**Musika Etxea:**

Eraikinera sartzeko atea egokitu zen, Lamuza kalea urbanizatzearen ondoriozko sarbide kota berria dela eta; bestetik, barruko sarbide arrapala kendu eta parket ijeztuko zoladura konpondu zen. Jarduketa horren kostua 6.031,25 eurokoa izan zen. Era berean, geotermia sistemako bero ponparen konpresorea konpondu zen, 5.077,55 euroko zenbatekoa ordainduta.

**Laudio: Alberto Acero plazako lokala**

Laudioko Alberto Acero plazan dagoen lokal bat ogasun bulego gisa eta Aldundiaren beste zerbitzu batzuetarako egiokitzeko egikaritze proiektua egin zen. Mugarri gisa, nabarmendu behar dira jabetza trukatzeko egin ziren kudeaketak, Kutxabankek erositako alboko lokalaren zati bat bereizi eta erosi baitzen. Energia-eraginkortasuneko neurriei dagokienez, isolamendu egokiez, ganberadun beirez eta led argiztapenaz gain, beroa berreskuratzen duen fluxu bikoitzeko aireztapen mekaniko kontrolatua erabiltzen da, eta, gainera, aireztapen natural gurutzatua ahalbidetu. Proiektuak ez zion gasturik egiten gure sailari, arkitektura-zerbitzuan bertan egin baitzen. Obra lizitatzeko oinarrizko aurrekontua 496.100 €-koa izan zen, BEZ zerga barne.



y evaluación del estado actual de la estructura del palacio para determinación de su capacidad portante actual, con un coste de 2.758,80 euros.

También se han realizado diferentes gestiones con la Agencia Vasca del Agua URA tendentes a conseguir la autorización para la renovación de un puente peatonal en el conjunto de Lamuza.

Por último, se ha realizado un estudio fotográfico profesional del exterior del palacio.

**Casino**:

Eliminación de los enlucidos interiores de yeso estucado y aplicación de nuevos revestimientos a base de morteros de cal drenante para facilitar el secado de los muros y la eliminación de humedades. La actuación asciende a 6.020,96 euros. Así mismo, se ha realizado la sustitución del control de alarmas por un importe de 1.205,83 €.

**Casa de la Música:**

Adecuación de la puerta de entrada al edificio debido a la nueva cota de acceso resultante de la urbanización de la calle Lamuza, así como eliminación de la rampa de acceso interior y reparación del solado de parquet laminado. La actuación asciende a 6.031,25 euros. Así mismo, se ha realizado la reparación del compresor de la bomba de calor del sistema de geotermia por un importe de 5.077,55 euros.

**Llodio: local en plaza Alberto Acero**

Realización del proyecto de ejecución consistente en la habilitación de un local en la plaza Alberto Acero de Llodio para oficinas de hacienda y de otros servicios de la Diputación. Como hito, cabe destacar las gestiones de intercambio de propiedad con la segregación y adquisición de parte del local medianero vecino comprado por Kutxabank. En lo que respecta a medidas de eficiencia energética además de los oportunos aislamientos, vidrios con cámara y argón e iluminación Leed, se emplea una ventilación mecánica controlada de doble flujo con recuperador de calor, además de posibilitar la ventilación natural cruzada. El proyecto no representa importe a nuestro departamento al realizarse en el propio servicio de arquitectura. El

**Arabako Biltzar Nagusiak**

Arabako Batzar Nagusietan, liburutegi zaharrean eta eskolten lokalean, prentsako areto berria egokitzeko lanen zuzendaritza fakultatiboa gauzatu zen. Azaldutako obra honako lote hauetan banatu zen: Egokitzapen lanak (71.497,37 euro gehi BEZ zerga); ikus-entzunezko instalazioak (49.346,51 euro gehi BEZ zerga) eta altzariak (21.841,50 euro gehi BEZ zerga). COVID-19 delakoaren ondorioz, materiala eskuratzeko zailtasunak izan ziren obra gauzatzean, eta altzariak berariaz diseinatu dira gela honetan jartzeko. Obra 2020an amaitu zen, eta ez zion kosturik ekarri sailari.

Honako lan hauek ere egin ziren (guztiak ere 1.000 eurotik gorako aurrekontua zutenez, hiru kontratistari eskatu zitzaien aurrekontua, eta, ikuspegi ekonomikotik, eskaintza onuragarrina aurkeztutakoari esleitu zitzaion):

- Bulegoak margoztea batzarkide taldeen eraikinean.
- 4 komunontzi aldatzea.
- Terraza konpontzea eta barruko patioa hesitzea.
- Komisioen gelan, bi bao ireki eta leihoak jartzea, COVIDaren eraginez, aireztapen naturala ahalbidetzeko.
- Sarbide kontroleko etxolako zoladura aldatzea.

**COVID-19**

Arkitektura zerbitzuak honako neurri hauek hartu zituen langileak COVID-19aren aurrean babesteko:

- Eraikinetako banaketa berriak, edukiera mugak eta barne zirkulazioko hautazko ibilbideak aztertzea.
- Lanpostuen arteko bi metroko distantzia fisikoa, mahaiak, armairuak, inprimagailuak eta beste elementu txiki batzuk mugituta.
- Elementu bereizleak jartzea, hala nola bionboak, mahaiko holtzak eta zoruko holtzak, langileen arteko

presupuesto base para la licitación de la obra es de 496.100 €, IVA incluido.

**Juntas Generales de Álava**

Dirección facultativa de las obras para la adecuación de una nueva sala de prensa en las Juntas Generales de Álava en la antigua biblioteca y local de escoltas. Esta obra ha estado dividida en los siguientes lotes: obras de acondicionamiento, que han ascendido a 71.497,37 euros más IVA; instalaciones audiovisuales, con un importe de 49.346,51 euros más IVA; y mobiliario, que ha resultado 21.841,50 euros más IVA. La obra se ha visto afectada por la dificultad en los suministros de material debido al COVID-19 y el mobiliario ha sido diseñado expresamente para esta sala. La obra se concluye en 2020 y no ha supuesto coste para el Departamento.

También se han realizado las siguientes obras, que al ser de importe superior a 1.000€ se ha solicitado presupuesto a tres contratistas y se ha adjudicado a la oferta económicamente más ventajosa, y son las siguientes:

- Pintura de oficinas en edificio de grupos Junteros.
- Sustitución de 4 inodoros.
- Reparación de la terraza y el vallado del patio interior.
- Apertura y colocación de dos ventanas en la sala de comisiones para ventilación natural por Covid.
- Sustitución de solado en la caseta del control de acceso.

**COVID-19**

El servicio de Arquitectura ha adoptado las siguientes medidas para la protección de los trabajadores frente a la covid 19:

- Estudio de nuevas distribuciones, limitación de aforos y recorridos alternativos de circulación interior en los edificios.
- Separación física de dos metros de distancia entre puestos de trabajo desplazando mesas, armarios, impresoras y otros elementos menores.
- Colocación de elementos separadores como biombos, mamparas de mesa y mamparas a suelo,

tartea zaintzea ezinezkoa den lekuetan.

- Jendeari arreta egiteko holtzak jartzea behar diren postu guztietan.
- Seinaleztapen-elementuak jartzea, hartutako neurriak adierazita (ibilbideak, edukierak…).
- Sartzeko atea irekitzea Ogasunaren eraikinean, eraikinaren berezko zirkulazio-fluxuak eta PFEZren kanpainak sortutakoak bereizteko.

Hartutako neurri guztien guztizko kostua 36.725,78 eurokoa izan zen.

**Fernando Buesa Arena pabiloia**

Fernando Buesa pabiloiko zenbait biltegi sektorizatzeko lanak, 47.354,91 euroko zenbatekodunak.  Gastuak ez zion gure da gure sailari eragin, Arabako Garapen Agentziak ordaindu baitzuen. Lana 2020an amaitu zen.

